

PLAZEREZKO KANTUA

Vinyes verdes del meu cor
dins del verd s'adorm la tarde
raïm negre, pàmpol d'or
aigua, penyal i basarda
vinyes verdes del meu cor.

(Josep Maria de Segarra)

Zure sorbaldaren gainean
pausatu dut burua,
bihotzak parez pare
eta gorputzak
elkarrekin
bakean,
berdearen freskotasumaz
jauregi eder baten
etxaurrea
untzorriek bezala,
hala hartu zaituztelako
ene eskuek
desiraz.

Zure gorputz osoaren
ederra senditu dut,
usaindu eta
dastatu,
zure aurpegiaren azala
ferekatu dudanean
neureaz.

Enbatak jotzen du
arimaren itsasagerretik,
liburuetako goroldioetan
sortzen
bizitzea,

CANCIÓN DE PLACER

Vinyes verdes del meu cor
dins del verd s'adorm la tarde
raïm negre, pàmpol d'or
aigua, penyal i basarda
vinyes verdes del meu cor.

(Josep Maria de Segarra)

Sobre tu hombro
he reposado
mi cabeza,
los corazones al par
y juntos los cuerpos
serenos,
como la frescura del verde
en las hojas de hiedra
la fachada
de un hermoso palacio,
así te han tomado
con deseo
mis manos.

He sentido la hermosura
de tu cuerpo,
la he olido
y gustado,
al acariciar con la mía
la piel de tu cara.

Sopla el viento
por los acantilados del alma,
entre el musgo
de los libros
surgen
la vida,

tristura eta
maitasunpoemak,
ur garbiak leuntzen ditu
harri koskor eta
desesperoak,
dantzaz,
doinuz,
laguna,
plazera
ezagutu dut eta.

Andolin Eguzkitza
University of California
Los Angeles

la tristeza
y los poemas de amor,
suaviza el agua clara
los cantos
y la desesperación,
envuelto por la música,
bailando,
a tu lado,
he conocido el placer.

(traducción del autor)

Andolin Eguzkitza
University of California
Los Angeles